# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

## 522

*EBAZPENA, 2018ko abenduaren 28koa, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearena, zeinaren bidez baimentzen baita 620. ikastarotik 622. ikastarora bitarteko ikasleei txartel hauek ematea: landare-osasunerako produktuak aplikatzeko oinarrizko mailako eta maila kualifikatuko txartelak.*

GERTAKARIAK

Lehenengoa.– Fundación Laboral de la Construcción fundazioak eta A y R Consulting prestakuntza-enpresak ikastaro hauek antolatu dituzte:

– 620. ikastaroa, Fundación Laboral de la Construcción fundazioak Vitoria-Gasteizen emandakoa: landare-osasunerako produktuak aplikatzekoa, oinarrizko mailakoa, B motako txartela eskuratzeko eskubidea dakarrena.

– 621. ikastaroa, A y R Consulting enpresak Gernikan emandakoa: landare-osasunerako produktuak aplikatzekoa, oinarrizko mailakoa, B motako txartela eskuratzeko eskubidea dakarrena.

– 622. ikastaroa, titulua baliozkotzea, C motako txartela eskuratzeko eskubidea dakarrena, eta beste autonomia-erkidego batzuetan egindako ikastaroak, landare-osasunerako produktuak aplikatzekoak, B motako txartela eskuratzeko eskubidea dakarrena.

Irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuaren IV. eranskineko A zatian –oinarrizko mailari dagokionez–, eta B zatian –maila kualifikatuari dagokionez– jasotzen diren edukia eta ikastorduak kontuan hartuta eman dira hiru ikastaro horiek, eta hurrenez hurren B eta C motako txartelak eskuratzeko eskubidea dakarte. Dekretu horren bitartez, landare-osasunerako produktuak modu jasangarrian erabili ahal izateko jardun-esparrua ezartzen da.

Bigarrena.– Landare Osasunaren Batzorde Teknikoaren koordinatzaileak txartelak ematearen aldeko proposamena egin du.

Ikusi dira, halaber, hauek:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuaren 18.1.a) artikulua, gaitze-mailei buruzkoa, eta IV. eranskina, prestakuntza-gaiei buruzkoa, eta 20. artikulua, txartelak egin, berritu eta kentzeari buruzkoa.

Bigarrena.– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 17.1.b) artikulua, non landare-osasunaren alorreko eginkizunak Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritzari ematen zaizkion. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Nekazaritzan landare-osasunerako produktuak aplikatzeko txartelak emateko agintzea:

1.– 620. ikastaroko oinarrizko mailakoa, ebazpen honetako I. eranskinean jasotako zerrendan diren pertsonentzat.

2.– 621. ikastaroko oinarrizko mailakoa, ebazpen honetako II. eranskinean jasotako zerrendan diren pertsonentzat.

3.– 622. ikastaroko maila kualifikatukoa eta oinarrizko mailakoa, ebazpen honetako III. eranskinean jasotako zerrendetan diren pertsonentzat.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jar diezaiokete Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute, ebazpena argitaratzen den egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 28a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria ez dagoenez, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2011 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera.

Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea,
BITTOR OROZ IZAGIRRE.

I. ERANSKINA

Baimena eman da landare-osasunerako produktuak aplikatzeko txartela (oinarrizko maila) eman dakien zerrenda honetako pertsonei (620. zenbakiko ikastaroa).

| 1. abizena | 2. abizena | Izena | Txartel zk. |
|---|---|---|---|
| Garzón | Ruano | Diana Vanessa | 903/18 |
| Ortiz | Rodríguez | Ainhoa | 904/18 |
| Vargas | Valencia | Silda Paola | 905/18 |

II. ERANSKINA

Baimena eman da landare-osasunerako produktuak aplikatzeko txartela (oinarrizko maila) eman dakien zerrenda honetako pertsonei (621. zenbakiko ikastaroa).

| 1. abizena | 2. abizena | Izena | Txartel zk. |
|---|---|---|---|
| Aguirre | Saracibar | Daniel | 906/18 |
| Burgos | Santos | Luis Carlos | 907/18 |
| Cano | Ibarra | Iñigo | 908/18 |
| Horcajada | López | Francisco de Asís | 909/18 |
| Ruiz | González | Fernando | 910/18 |
| Terrachet | Martitegui | Gerardo | 911/18 |
| Vázquez | Sobrado | Enrique | 912/18 |

III. ERANSKINA

Baimena eman da landare-osasunerako produktuak aplikatzeko txartela (maila kualifikatua eta oinarrizko maila) eman dakien zerrenda honetako pertsonei (622. zenbakiko ikastaroa).

Titulua baliozkotzea. Maila kualifikatua.

| 1. abizena | 2. abizena | Izena | Txartel zk. |
|---|---|---|---|
| Aguirreurreta | Regueiro | Daniel | 913/18 |
| Bilbao | Larringan | Enrique María | 914/18 |
| Cerro | Santelices | Josu | 915/18 |
| Esturo | Errazti | Andoni | 916/18 |
| García | Muñoz | Sonia | 917/18 |
| Gimeno | Mugica | Ion | 918/18 |
| Iturbe | Suberbiola | Ainhoa | 919/18 |
| Izaguirre | Eceiza | Aitor | 920/18 |
| Machain | Arrozpide | Igor | 921/18 |
| Macías | Rodríguez | Álvaro | 922/18 |
| Madina | Aizkorbe | Ibai | 923/18 |

Beste autonomia-erkidego batzuetan egindako ikastaroak. Oinarrizko maila.

| 1. abizena | 2. abizena | Izena | Txartel zk. |
|---|---|---|---|
| Aldea | Arranz | Iñigo | 924/18 |
| Calabozo | Olazaran | María Carmen | 925/18 |
| Echevarria | Martínez | Sergio | 926/18 |
| Izaguirre | Echeverria | Elena | 927/18 |
| Marín | Valmaseda | José Ignacio | 928/18 |
| Muñoz | Grande | Dimas | 929/18 |
| Reguilón | Arrizabalaga | Pedro María | 930/18 |